


LABURBIRA 2012

Film Laburren Zirkuitua
Otsailaren 29tik apirilaren 4ra

KOPURUA eta IRAUPENA:

Guztira 85 minutuko iraupena izango dute 2012 emankizunek.
Zortzi ikus-entzunezko aukeratu dugu 2012ko LABURBIRArako: bideo musikal bat,
animazio bi, lau fikzio eta dokumental bat.

HEMEN NAGO. 2010 (13'45'')



MAIALEN SARASUA.

Orion jaioa 1983ko martxoaren 25ean. Ikus-entzunezko komunikazioan lizentziatu zen 2005. urtean Bartzelonako Pompeu Fabra unibertsitatean. Azken urteetan Moztu Filmak enpresan lanean aritu da, besteak beste “The Last Passage” eta “Prohibido Recordar” dokumentalen edizio eta postprodukzioan. Aurretik Orio Produksioak enpresan jardun zen ETBko Sautrela literatura saioko errealizadore eta eduki koordinatzaile.

Filmografia


Esparri pertsonalago batean, gidoilari eta zuzendari moduan, lau proiektu atera ditu aurrera: “Hemen Nago” fikziozko laburmetraia (Lekeitiko Euskal Zine Bileran eta Huhezinean saritua), “Prescrit 69/78” luzemetraia dokumentala (pasa den otsailean Bartzelonan estreinatua) eta “Uraren azalean” eta “14 Apostolu” laburmetraia dokumentalak.

Sariak eta jaialdiak

IV. HUHEZINEMAn Goiena Saria, Lekeitioko XXXIII Euskal Zine eta Bideo Bileran profesional mailan fikziozko kortorik onena, Anonimul International Independent Film Festival (Romania), Babel Film Festival (Cagliari), Zinebi 52 (Infoeuskadi atala), Begibistan 2011. Amurrioko V. Zine Astea eta Zinevasco 2011 (Caracas)

Sinopsia

Lau urterekin ez da erraza irudimena eta errealitatea bereiztea. Xalotasuna eta krudelkeriaren arteko muga ere lausoa da askotan. Garrantzia duen bakarra bizirautea da. Imanolek argi dauka eta horren arabera jokatzen du.



LABURBIRA 2012
Film Laburren Zirkuitua
Otsailaren 29tik apirilaren 4ra

ZEINEK GEHIAGO IRAUN. 2011 (12')



GREGORIO MURO.

Donostia, 1954. Komikigilea, telebista eta zinema gidoilaria eta zuzendaria. Hainbat urtez lanak batez ere Frantzian argitaratu ondoren, Ipar haizearen erronka (1992) animaziozko film luzean gidoilari lanak eginez sartu zen ikus-entzunezkoen munduan. Harrez geroztik, hainbat ekoizpenetan gidoilari ibili da, eta Etxaldeko erregea film luzean eta Tras los visillos, Perros de presa eta Zeinek gehiago iraun film laburretan zuzendari lanak egin ditu.

Filmografia

2001	El rey de la granja
2008	Tras los visillos
2009	Perros de presa
2011	Zeinek gehiago iraun
2011	Por los camareros

Sinopsia

Haur jolas arriskutsu batek Anderren eta bere familiaren bizitza aldatuko du betirako.



LABURBIRA 2012
Film Laburren Zirkuitua
Otsailaren 29tik apirilaren 4ra

URREZKO ERAZTUNA. 2011 (7)



JON GARAÑO.

Donostian jaio zen 1974an. EHU-n Kazetaritza eta Publizitatea ikasi ondoren, zinemagintza ikasketak egin zituen Sarobe eta San Diegon (AEB). 2001 urtean Moriarti produktora sortu zuen lau kiderekin, bertan lan egin du gidoilari eta zuzendari gisa hainbat lanetan.

90 Sari baino gehiago jaso dituzte berak egindako film laburrak 90 eta telebistarako dokumentalak, 15 herrialde desberdinetan eman dira.

Filmografia

2001 Despedida

2003 Sahara Marathon

2005 The Dragon House

2006 Miramar St

2007 Tex Norton

2008 FGM

2008 Alamiou

2008 On the Line

2008 Asämara

2010 El método Julio

2010 80 egunean

2010 Perurena

2011 En la casa del Nazareno

Sinopsia

Aitak itsasoan galdu zuen ezkontzako eraztuna. Marinel guztiek bezala, kendu egiten zuen hatzetik eta lepokoan jarri, sarea largatzean hatza gal ez zezan.



LABURBIRA 2012
Film Laburren Zirkuitua
Otsailaren 29tik apirilaren 4ra

BENITO ANSOLA BEKAK 2011

IZENA DUENA. 2011 (9´)

JOSEBA UBERUAGA.



Gaua bukatzeaz da. Basajaunek beste askotan bezala zaindari igaro du gaua. Bordatxoko tximinian kea ageri da eta bere lana bukatutzat eman lezake. Baina azken unean agertu dira Otsoak, arrapaladan. Txistua joaz ohartarazi nahi ditu

bordakoak, baina gaztea da izarrik dagoen artzaina eta ez du deia aintzakotzat hartzen, basoetako izakiak sineskeria hutsa direla erakutsi baitiote.

OHE AZPIKO ZERA. 2011 (13´)

DAVID ZABALA eta PAUL URKIJO.



Mattin mutiko gazte bat da. Etxean eta ikastolan arazoak dauzka galtzerdiak galtzen dituelako. Klase-kideek burla egiten diote eta gurasoek errieta. Gaez, bere gelako ohean komiki bat irakurtzen dagoen bitartean zaratatxo batzuk entzuten ditu ohe azpi ertzean.

Mattin lo geratzen da.

LABURBIRA 2012
Film Laburren Zirkuitua
Otsailaren 29tik apirilaren 4ra

KANTUKA-REVOLTA PERMANENT. 2011 (3')



KULTUR KABIA. IZARREN DISTIRA.

Revolta Permanent taldearen bideoklip berria, "Kantuka" abestia, Izarren Distira egitasmoaren barruan grabatua Getxon, Sopelan, Lezaman eta Zaldibarren 2011ko urriaren 16an grabatu zuten Juantxu Beloki eta Jone Novok.

Revolta Permanent taldea Iker Aginaga eta Iker Villa Barakaldarrek osatzen dute.

Euskal Rap...Euskal Herrian



LABURBIRA 2012
Film Laburren Zirkuitua
Otsailaren 29tik apirilaren 4ra

INSTALACION. 2010 (14'22'')



XOXE DIAZ.

Arte garaikide museo bateko zuzendariak, kritiken presiopean dela, bere izen ona babestu eta finantziazioa bermatuko dion premiazko "instalazio" baten bila dabil. Egoera horrek behartuta, erreferentzia gutxiko artista ezezagun baten artelana onartzen du. Zuzendariak baina, ez du "instalazio" horren ezaugarrien berri.



Ikus entzunezko guztiak euskaraz garaturikoak dira, INSTALACION, izan ezik. Hau galegoz egindakoa da, Galizian, eta euskarazko azpidatziekin eskainiko da LABURBIRAn.

(TOPAGUNEAREN kultura batzordean erabaki da edizio bakoitzean bestelako hizkuntza batean egindako lan bat txertatzea, euskarazko azpidatziekin.)

LABURBIRA 2012
Film Laburren Zirkuitua
Otsailaren 29tik apirilaren 4ra

ABERRIA. 1961 (15´)



GOTZON ELORTZA.

Francoren diktaduraren garaian – 50eko hamarkadaren bukaeran eta 60ko hamarkadaren hasieran- Gotzon Elortzak zinemazaleak, zenbait dokumental filmatu zituen 16mm-ko kamerarekin Bizkaiko lurretan. Parisen bizi zen garai hartan Gotzon eta helburu garbi bat zuen ikus-entzunezkoen arloan ere euskaraz lekua izatea. Lan haiek euskaraz osorik egindako lehenengo dokumental gisa hartzen dira gaur egun.

Sinopsia: Aberriaren inguruko hausnarketa sakona eta berezia. Baserri giroko ikuspegi islatzen du garaiko euskal kulturaren ikur ziren Valentin Enbeita eta Jon Lopategi Bertsolariekin eta Victor Olaeta dantzariekin. Garaiko zentsurari izkin egiteko, Erria izenburua jarri zion Elortzak filmari.

EUSKARAZKO LEHEN DOKUMENTALA:

ABERRIA, dokumentala (Gotzon Garate, 1961) euskaraz egindako lehenengoetakoa da. Duela 50 urte egindakoa da, Franko garaian, eta besteak beste, balio historiko handikoa dela uste dugu.

LABURBIRA 2012
Film Laburren Zirkuitua
Otsailaren 29tik apirilaren 4ra

OHARRAK

LABURBIRAREN 2012ko edizioan kontuan hartu beharreko zenbait ohar:

- **FORMATUA:** Iaz bezala DVD formatuan egingo da zirkuitu osoa. Pantaila, DVD irakurgailua eta proiektorea bertan egotea elkarrearen ardura izango da. Topaguneak DVDA eta publiziterako euskarriak 10 egun lehenago bidaliko dizkizuegu, lehenago posible bada.
- **DATAK:** Zirkuitua **otsailaren 29tik apirilaren 4ra bitartean** egingo da. Zuzendariarekin solasaldia eskatuz gero, eskaera orrian data bat baino gehiago jartzea komeni da, batean ezin bada bestean lotzeko. Solasaldirik antolatzeke asmorik ez badaukazue, jarritako datan egiteko arazorik ez dago, beraz hasiera batetik konfirmatutzat emango da.
- **EPEA:** Eskaera egiteko epea **urtarrilaren 31n amaituko** da. Eskaera-orriak gazteak2@topagunea.com helbidera bidali behar dira.
- **EUSKARA ELKARTEAREN EKARPENA:** Emanaldia, publizitate euskarri eta kudeaketaren truke elkarrekin ordaindu beharrekoa 300 € izango da (iaz baino 15 € gehiago). Herri berean bigarren emanaldi antolatzearen truke 200 €
- Bederatzigarren edizio honetan hiruzpalau zuzendari daude herriz herriko solasaldietan ibiltzeko prest. Interesik izanez gero, eskaera orrian adierazi, baina gerora jakingo da zein joango den nora. Zuzendariaren bisitarekin 50.00 € igotzen da elkarrearen ekarpena. Guztiari BEZa gaineratuko zaio.
 - Informazio gehiago: gazteak2@topagunea.com / kulturgintza@topagunea.com